

NERBIOI IBAIZABAL III. IDEIA LEHIAKETA: EMPRENDETHEA

ENPRESA-PROIEKTUEN LEHIAKETA

Nerbioi Ibaizabal Eskualdea
Gazteria sailak

Lehiaketaren oinarriak



ESKUALDEAN GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TRESNAK NERBIOI IBAIZABAL GAZTEDEI 2015

“ENPRESA PROIEKTUEN LEHIAKETA”



ANTOLATZAILEAK
ORGANIZADORES



LAGUNTZAILEA
COLABORA



Nerbioi Ibaizabal III. ideia lehiaketa: Emprendethea. Enpresa-proiektuak.

Nerbioi Ibaizabal eskualdean ekintzailatzarako kultura sustatzea du helburu programa honek, eta horren bidez, enpresa-proiektuen sorrera bultzatzea, gerora, enpresa-haztegi izan daitezkeenetan sartu ahal izateko, parte hartuko duten udalerrien babesarekin: Arakaldo, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Urduña, Orozko, Ugao eta Zaratamo.

Nerbioi Ibaizabal eskualdearen 2015eko **Gazteen Enplegua sustatzeko tresnak** proiektuan definitutako helburuen zati da ekimen hau; izan ere, gazteen enplegua ahalbidetuko duten ekintza batzuk datoz jasota bertan. Horien artean, ekintzailetasuna sustatzea autoenplegurako eta garapen ekonomikorako.

1. Lehiaketaren helburua.

- Eskualdeko gazteen artean **ekimenak sortzeko eta garatzeko jarrera sustatzea**.
- **Interesa sustatzea** auto-okupaziorako, ekintzailetasunaren kulturarako eta proiektu eta enpresak sortzeko jarrerarekiko.
- **Gazteek enpresa-proiektuetan parte har dezaten aktibatzea**.
- **Eskualdeko herritarrei gazteriaren irudi sortzailea, ekintzailea eta aktiboa proiektatzea**.
- Enpresa-ideia onenak **saritzea**.

2. Nori zuzenduta dagoen.

Batez ere Nerbioi Ibaizabal eskualdeko 18 eta 29 urte arteko gazteei, bai banaka, bai taldean. Baina eskualdean oraindik erroldatu gabe egonik ere, ekimena taldean aurkeztu eta taldeko erdiak gutxienez sustatzaile diren udalerrietakoren batean erroldatuta dauden taldeek ere aurkeztu ahal izango dute (behar bezala justifikatu beharko da):

- banakako proiektua.
- taldeko proiektua (elkartu gabeko gazte taldeak).*
- gazteek osatutako erakunde eta enpresak.**

***Zenbait lagunen artean egindako proiektuen kasuan, nahikoa izango da taldeko kideen erdiak 18 eta 29 urte artekoak izatea, biak barne, proiektua gazteen proiektu gisa hartzeko.**

****Eskualdean 2015 urtean zehar martxan jarri eta amaitu gabe dauden enpresa sortzeko proiektuak ere aurkeztu ahal izango dira.**

3. Lanak aurkezteko epea.

Lehiaketarako **deialdia** 2016ko otsailaren 10ean irekiko da, eta proiektuak 2016ko martxoaren 10 arte aurkeztu ahal izango dira. Epaimahaiaren ebazpena gutxi gorabehera hilabeteko epean emango da.

4. Dokumentazioa eta aurkezteko lekua.

Nahikoa da bideragarria den enpresa-proiektua izatea. Baldin baduzu, prestatu eskaera honako dokumentu hauek bilduta:

- 1- Izen-emate fitxa behar bezala beteta**, udaletako webguneetan eta Nerbioi Ibaizabal Gaztedi eskualdeko proiektuan bertan emandako ereduaren arabera: www.nerbioiibaizabalgaztedi.eus
Udaletako Gazteria eta Enplegu Zerbitzuetan ere har daiteke.
- 2- Proiektu edo ideia fitxa**, datuak laburbiltzen dituen.
- 3- Negozio-plana edo proiektuaren dosierra** behar bezala idatzita (10 orrialde baino gutxiago).
Proiektuaren fitxa bera plan horren prestaketarako erabil daiteke.
- 4- Egiazkotasunaren zinpeko aitorpena** proiektua – enpresa aurkeztuko duenak sinatuta (eredu libre).
- 5- Parte hartuko duten guztien datuen eranskina** – CVA.
- 6- Ordezariaren NANaren kopia.**
- 7- Errolda-ziurtagiria** (dagokion udalean lor daiteke).

Dagoeneko sortutako enpresen kasuan, gainera, honako hau aurkeztuko da:

- 8- Enpresako bazkide diren Curriculum Vitae-a.**
- 9- Enpresaren bazkide diren pertsonen NANaren fotokopia.**
- 10- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta-dokumentuaren fotokopia (JEZ).**

Proiektuak aurkezteko bi bide egongo dira: online eta aurrez aurrekoa:

- 1) Online:** Posta elektronikoa honen bidez: nerbioiibaizabalemplo@gmail.com Edo lehen aipatutako webguneetan.

- 2) **Aurrez aurre:** Parte hartuko duten udaletako udaletxeetan: Arakaldo, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Urduña, Orozko, Ugao eta Zaratamo.

Aurrez aurre aurkezteko eskakizunak:

- Gutun-azal handian, **proiektuaren ALEA inprimatuta** aurkeztuko da. Gainera, proiektuaren kopia erantsiko da euskarri informatikoan (CD edo pendrive-a) ongi identifikatuta. Kanpoan, proiektua eta gutun-azala proiektuaren izenburuarekin identifikatuta egongo dira.
- Gutun-azalaren barruan, gutun-azal txikian, **parte-hartzaile(ar)en informazio guztia** sartuko da (ikusi zer dokumentazio behar den).
- Proiektuan **ordezkari gisa arituko den pertsona fisikoa izendatu** beharko da, saritutako proiektuak hautatzeko prozesurako, eta hori argi eta garbi identifikatuko da entregatutako dokumentazioan (izen-emate fitxa).
- **Lehiakide bakoitzak proiektu bakarra** bidali ahal izango du.
- Ekimenak **EAEko hizkuntza ofizialetan** garatu ahal izango dira.

Dokumentazio eta informazio guztia emango zaio hala eskatzen duenari, aurrez aipatutako bideetan.

Lehiaketako epaimahaiak beharrezkotzat hartuz gero, lehiaketara aurkeztutakoekin elkarriketak egin daitezke.

5. Epaimahaia.

Bi fase izango ditu hautaketa-prozedurak:

A) Lehen fasea: Ebaluazio-batzordea.

Epaimahaiak aukeratu aurretik, ekimenak talde tekniko batek ebaluatuko ditu, eta hark egiaztatuko du deialdiaren baldintzak betetzen direla. Bestalde, ekimenaren bideragarritasuna eta kalitatea baloratuko du eta puntuazioa emango dio (0-10 artean). Talde teknikoak epaimahaiari emango dizkio deialdiaren baldintzak betetzen dituzten eta, gainera, bideragarritasun eta kalitate aldetik gutxieneko puntuazioa (6 puntu) lortu duten ekimenak.

Batzordeak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu dela egiaztatuko du. Hala izango ez balitz, proiektuaren arduradunari egindako akatsak edo dokumentazio-gabezia zuzentzeko eskatuko zaio. 5 laneguneko epea izango du horretarako.

B) Bigarren fasea: Lehiaketaren epaimahaia.

Proiektu finalistak epaimahaiak baloratuko ditu. Epaimahaia eskualdea osatzen duten udaletako teknikariek eta gaian adituak diren eragile sozialek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia publikoa eta apelaezina izango da. Epaimahaiak modu objektiboan eta inpartzialean baloratuko ditu lehiaketara aurkeztutako ideiak.

Balorazio-irizpideak:

1. Ideiaren bideragarritasuna. % 50
2. Kalitate teknikoa, proiektuaren barne-koherentzia eta ideiaren zehaztasun maila. % 40
3. Izaera berritzailea. % 10

Proiektu irabazleen zerrenda eta aurkeztutako ekimenen zerrenda **hilabeteko epean argitaratuko da** eskualdeko udaletako webguneetan eta proiektuaren webgunean.

6. Sariak.

Ezarritako balorazio-irizpideen arabera sarituko dira ideiak, baina lehiaketaren izaera sustatzailea eta eskuragarri duen zenbatekoa dela eta, ez da proiektuen ezarpena eskatuko.

Lehiaketaren antolakuntzak 4.000 € bideratuko ditu sarietarako, eta **lau proiektu sarituko dira, bakoitza 1.000 €-ko zenbatekoarekin**. Sari horiei, indarrean den legedia aplikatuta, **dagokien atxikipena egingo zaie (% 19ko atxikipena)**.

- Lehiaketa honetan **lanerako aukera berriak sortzeko gaitasuna saritu nahi da**; hori baita ideia ekintzailea martxan jartzeko lehen urratsa.
- **Epaimahaiak lehiaketa hutsik utz dezake**, edo sarietakoren bat, aurkeztutako ekimenek eskatutako gutxieneko kalitatea edo bideragarritasuna ez badute.

Sari-banaketa publikoa izango da eta parte-hartzaileei dei egingo zaie saritutako ekimenen aurkezpen-ekitaldira joan daitezen.

Sarien ordainketa.

Ordainketa bakarra egingo da, epaimahaiak erabakia hartu ostean. Ordainketa horrek ez du ekarriko proiektua martxan jartzea, saria ideari emango baitzaio.

Ordainketak proiektu irabazlearen ordezkariarekin kudeatuko dira, egoki iritzitako moduan. Baliteke dagoeneko martxan dauden enpresen proiektuan, zerga-dokumentazio osagarriren bat eskatzea.

7. Isilpekotasuna.

Lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren datu pertsonalak datuak babesteko lege-araudiaren arabera erabiliko dira. **Lehiaketako antolatzaile diren udalek** saritu gabe geratutako parte-hartzaileek emandako proiektu eta datuen inguruan isilpekotasuna zaintzeko konpromisoa hartzen dute. Epaimahaiak erabakia eman ondoren, proiektu irabazleen ezaugarri orokorrak zabaldu ahal izango dira, baita sustatzaileen izena eta irudia ere, aldezturik eskatuta. Eskualdeko Nerbioi Ibaizabal Gaztedi proiektua eta lehiaketa sustatzeko eskatuko zaien publizitate-ekintza guztietan laguntzeko betebeharra izango dute irabazleek.

Era berean, jakinarazten dugu datu pertsonal guztiak fitxategi batean sartuko direla eta prozesua nola doan jakinarazteko erabiliko direla. Dena dela, ekimenak zabaltzeko prozesuaren ekintzak egiteko eta Nerbioi Ibaizabal eskualdeak antolatutako gazteen enplegu-programa berriak jakinarazteko datu horiek erabiltzeko baimena eskatuko da.

8. Oinarriak onartzea.

Lehiaketan parte hartze hutsak berekin dakar **oinarrietan jasotako atal guztiak eta epaimahaiaren erabakia (apelaezina izango da) onartzea**. Gainera, udalek erreserbatuta dute, lehiaketaren garapena errazteko, oinarri hauetan egoki iritzitako aldaketak egiteko aukera.

9. Ideiak aurkezteko egin daitekeen gidoia.

- 1- Enpresa-ideiaren izenburua.
- 2- Eskaintzen den produktu edo zerbitzuaren beharra justifikatzea: zergatik behar da hori merkatuan?
- 3- Ideiaren alderdi berritzailearen definizioa: zertan da berritzailea produktua edo zerbitzua?
- 4- Zerbitzu edo produktuen definizioa: zer saltzen edo eskaintzen dut?
- 5- Bezero posibleen definizioa: nori zuzenduta dago?.
- 6- Giza baliabide eta baliabide materialen definizioa: nork jarriko du martxan proiektua?, zer behar da martxan jartzeko?
- 7- Plan ekonomikoaren definizioa: nola saltzen da eta zenbat kostatzen da egitea?, hasieran behar den inbertsioa eta finantzaketa-iturri posibleak...